IGELDOKO BEHATOKIA

Igeldoko behatoki meteorologikoa (1905) Juan Miguel Orcolaga apaizaren eskutik sortu zen, Gipuzkoako Elkarte Ozeanografikoaren eta Arrantzaleen Kofradiaren laguntzarekin.



Orcolagaren oroitzapenezko monumentua Igeldoko behatokitik gertu.

Orcolaga hil ondoren, behatokiak bere horretan jarraitu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren inplikazioari esker. Igeldoko behatokiaren arduradunen artean, Mariano Doporto nabarmendu behar da, bere ekarpen zientifikoarengatik. Azken horrek hainbat argitalpen egin zituen behatokiaren datuak oinarri hartuta, erbesteratu behar izan zuen arte.

Guda zibila amaitu ondoren, Behatokia Aire Ministerioaren mende izatera pasa zen, eta hura Euskal Herriari zegozkion Kantauriko arnoaren datuak zentralizatzeaz arduratu zen. Garai horretan Carlos Santamaría matematikariaren ikerketa lana nabarmendu zen.

Pixkanaka, Behatokiari giza baliabide eta baliabide material gehiago hornituz joan ziren, eta lehendabizi Meteorologia Zerbitzu Nazionalari atxiki zitzaion, beranduago Meteorologiako Erakunde Nazionalari (INM), eta ondoren Estatuko Meteorologia Agentzia




Igeldoko behatokia. Ezkerraldean, behatoki dorre txikia.

(AEMET) bilakatu zen . Bere behaketek sare nagusian parte hartzen dute, bere bildumak oso zaharrak direlako eta, oro har, langile espezializatuaren eskutik etorri direlako, fidagarritasun eta jarraitutasun handia emanez.

Behatokiko eraikinak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa, lau solairuko behaketa dorre txiki bat, bi solairuko erantsitako eraikin bat lorategi bat dauka atzealdean. Sentsoreetatik asko azken horretan instalatuta daude.

Behatokiaren bulego nagusiak, Igeldoko eraikina oso estua zenez, Peñaflorida Institutuan kokatuta izan ziren eta 1961. urtetik aurrera, Ategorrieta Etorbidean eta, XXI. Mendean, berriz, Intxaurrondon. Azkenik, bulegoak Pio XII. Plazako Estatuko bulegoetan instalatu ziren.

Gehiago jakiteko: Igeldo : un observatorio meteorológico para el Golfo de Bizkaia / Asun Urzainki Mikeleiz.



Ortoargazkia 1954. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Gipuzkoako Foru Aldundia. UTM 30N ETRS89 // X: 577772 m // Y: 4795299 m // Z: 251 m.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza-G. Vasco; geoEuskadi. Planta karratuko dorrea eta lorategidun gunea argi ikusten dira. Azken horretan sentsore meteorologiko desberdinak instalatuta daude.